

MATEMATIKAKO FROGA

- 1 Gehien gustatzen zaizkien koloreei buruzko inkesta batean, emaitza hauek lortu dira:


KOLOREAK	M. ABSOLUTUA	M. ERLATIBOA
LARANJA	14	
BERDEA	16	
HORIA	20	
URDINA	25	
GORRIA	23	
GUZTIRA	98	

a) Nolako aldagaia da?

b) Osatu taula datu bakoitzaren maiztasun erlatiboarekin.

c) Zer adierazten du maiztasun erlatiboak?

- 2 Erreparatu barra-diagramari. Bertan astean zehar antzezlan batera joan den ikusle kopurua ikusten dugu.




a) Zer izenburu jarriko zenioke grafikoari?

b) Nolako aldagaia da?

c) Zer egunek du maiztasun handiena?

d) Zein da osteguneko maiztasun absolutua?

- 3 Grafikoak urbanizazio bateko auzotarren adinaren arabera banaketa adierazten du.



- a) Zein adin tartek du maiztasun handiena?
- b) Urbanizazioan 1 610 auzotar badaude, zenbatekoa da 40-49 adin-tartearen maiztasun erlatiboa?
- c) Egin histogramaren gainean dagokion maiztasun poligonoa.
- d) Zer adin-tartek du maiztasun erlatibo txikiena?
- 4 Honako hauek dira 6. mailako ikasleek Matematikako azken azterketan lortutako notak:

3 - 2 - 5 - 7 - 8 - 4 - 6 - 9 - 5 - 6 - 2 - 7 - 8 - 9 - 5 - 6 - 4 - 5 - 8 - 4

- a) Ordenatu datuak txikienetik handienara:
.....
- b) Kalkulatu taldearen batez besteko nota.
- c) Zenbat da mediana?
- d) Eta moda?

- 3 Saiakuntza: LOTERIA ONTZITIK BOLA BAT ATERA.

Adierazi taulan, gurutze baten bidez, gertaera bakoitza zer den.

GERTAERA	SEGURUA	PROBABLEA	EZINEZKOA
«a» LETRA ATERA			
BOKALA ATERA			
KONTSONANTEA ATERA			
«a» ETA «O» EZ DEN LETRA BAT ATERA			



5 Saiakuntza: POLTSATIK BOLA BAT ATERA.

Ordenatu honako gertaera hauek probabilitate gutxien duenetik gehien duenera.

A – Zazpi atera.

E – Bakoitia atera.

B – Zazpi baino gehiago atera.

F – Bederatzi baino gehiago atera.

C – Zazpi baino gutxiago atera.

G – Hamar baino gutxiago atera.

D – Bikoitia atera.



..... - - - - - -

7 Martak 30 aldiz jaurti du botila baten tapoia, eta emaitzak idatzi egin ditu.

A



B



C



A		18
B		12
C		0

Emaitzak kontuan hartuta, kalkulatu berriro jaurtitzean honako aukera hauek duten probabilitatea;

a) A posizioan erori. →

c) C posizioan erori. →

b) B posizioan erori. →